

KAPITALISMO  
HETEROPATRIARKALARI  
PLANTO!

BIZITZAK ERDIGUNERA!

Greba feministaren hausnarketa,  
antolakuntza eta komunikaziorako dossierra

GREBA  
FEMINISTA

Martxoak  
8

# AURKIBIDEA

1. SAR HITZA	4
2. ZER DA GREBA FEMINISTA?	5
3. NOLA EGINGO DUGU GREBA?	6
4. ZEIN DA GREBAREN SUBJEKTUA?	7
5. ZER DA LANA?	8
6. ZER ESKATZEN DUGU?	9
Bizitzak erdigunean!	9
Bizitza prekariorik ez!	10
Indarkeriarik matxista eta heteroaraurik gabeko bizitza anitzak!	11
Arrazakeriarik eta gerrarik gabeko bizitzak! Kolonialismoaren aurrean gure gorputza eta lurra defenda dezagun!	11
7. ZERI EGINGO DIOGU PLANTO?	13
Kapitalismoari planto!	13
Patriarkatuari planto!	13
Heteroaruari planto!	14
Kolonialismoari planto!	14
Kapazismoari planto!	14
8. EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN EGOERA:	15
DIAGNOSI SOZIOEKONOMIKO BAT	
Emakume, bollera eta transak enplegu prekarioan	15
Zaintza eta etxeko-lan ordainduak	16
Zaintza eta etxeko lan doakoak	17
Instituzio publikoen ardura	17
9. ZEIN DA GIZONEN PAPER A GREBA HONETAN?	18

# SAR HITZA

## Zer aurkituko duzu txosten honetan?

Txosten honek oinarri ideologiko, egoeraren azterketa eta aldarrikapen bateratu batzuk eskaini nahi ditu, grebaren antolakuntza prozesuan gauden feministok erabiltzeko. Horrela, prozesuan egingo ditugun eztabaidak eta formazioa elikatu nahi ditu, eta, orobat, lanabes izan nahi du, gure proposamen politikoetan sakontzeko.

Elkarlanean eta kolektiboki idatzi dugu, errealitate espezifikoen arabera antolatuta dauden hainbat subjektuk jarri dute beren alea: etxeke langileek, emakume\* baserritarrek, pentsionistek, gazteek, migranteek zein aniztasun funtzionala dutenek, gorputz disidenteek, sindikatuak, ... Askotariko ekarpenak jaso dira.

Alor sozioekonomikoa eta zaintza lanak jarri ditugu erdigunean, hala erabaki genuelako Donostian azaroan egindako asanblada nazionalan. **2019ko greban, zaintzen gatazka azaleratu nahi dugu, bereziki, gure diskurtso eta ekintzetan.** Guztiak hartuko ditugu kontuan: etxekeak, zaintza lan ordainduak, ordaindu gabekoak eta sistema publikoak kudeatzen dituenak. Hala ere, berdin garatu eta aztertu daitezke beste hainbat eremu, eztabaida zabalik dago!

## Nola erabili txosten hau?

Herrietako eta hirietako asanbladetan partekatu daiteke, bertan landu nahi diren diskurtsoak eta aldarrikapenak errazago jorrazteko. Aliantzak indartze aldera, lasai jo dezakegu hainbat arrazoi tarteko gure prozesu feministen bazterretan dauden emakumeengana, bollerengana eta transengana, eta haien begiradak jaso. Sortu ditzagun ezagutzeko eta konpartitzeko espazioak.

Txostena amaitu gabeko testu bat da. Hortik abiatua, hauxe da helburua: asanblada bakoitzak bere testuingurura eramatea. Metodologia bat prestatzea da asmoa, eta, hala, egoeraren argazkia tokiko elementuekin osatu, gure errealitatearekin bat datozen aldarrikapenak aukeratu eta berriak identifikatu. Pentsa dezagun: Nola mamitzen dira hemen ageri diren zapalkuntzak gurean? Hau da, nola eragiten digu kapitalismoak edota patriarkatuak egunerokoan? Nola zeharkatzen gaitu zaintzaren gatazkak? Zein da inguruan dauden emakume\* anitzen errealitatea? Zer aldarrikatu nahi dugu gure herrian edota hirian?

Hizkera trinko eta konplexua izan dezake testuak. Bada, hauxe da proposamena: lerro hauetan oinarrituz, eskualdeetan bestelako euskarri komunikatibo zein irakurketa arinagoak garatzea, zabalpena erraztuko dutenak eta maila lokalarekin lotura izango dutenak.

## Eztabaida ez da hemen amaitzen...

Txosten honetan ageri diren hainbat gaik, sakontzeko ariketa bat eskatzen dute. Baina prozesua ez da hemen amaitzen, hurrengo ezinbesteko urratsa 2019ko Euskal Herriko Jardunaldi Feministak izango dira. Bertan, egoeraren analisi sakona eta gure estrategia feministak berraztertzeke parada izanen dugu, patxada handiagorekin.

Bete ditzagun kaleak errebeldia feministaz, berreskuratu dezagun lapurtu diguten lekua, gelditu dezagun basakeria eta mundu berri bat eraiki!

**GOAZEN GREBA FEMINISTARA!**

# ZER DA GREBA FEMINISTA?

**Martxoak 8an emakumeok, transok eta bollerok lan guztiak utziko ditugu eta kaleak hartuko ditugu. Greba feminista bizitzako esparru guztietan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, sexualitatean, kontsumo eremuan, familia eraikitze moduan, jakintzak ekoizteko eran, arrazakeriaren aurrean, edertasun eremuan eta zapalkuntza guztien aurrean. Greba feministarekin, hetero-patriarkatu-kapitalistari PLANTO egingo diogu!**

**Iraultza feministak bizitza politizatzea exijitzen du, egunerokoa borroka eremu bezala aitortzea,** botereek gure gorputzak erregulatzen dituztela antzematea eta horiek errotik aldatzeko prest egotea. Feminismoa ez da eroso, praktika politiko erradikala da. Ondorioz, gatazka beharrezkoa da, bereziki, gatazka politikotik kanpo kokatu diren eremuetan. Egoera prekarioenetan dauden lan feminizatueta, dohainik egin behar ditugun zaintza lanetan, familia heteroarautuetan. Martxoak 8an hetero-patriarkatu-kolonial-kapitalistak alboratzen gaituenok erdigunea hartuko dugu, transon, bollerok eta emakumeon bizitzak erdigunean jarri nahi ditugulako. Horregatik, bost ardatzetan antolatu dugu greba: pentsionista, ikasle, zaintza, enplegu eta kontsumo greba feminista izango da.

## NOLA EGINGO DUGU GREBA?

laz bezala, greba egiteko eta grebaren parte izateko hainbat modu egongo dira emakumeontzat\*: 1) lantoki eta ikasgeletan greba egitea, 2) Herri eta hirietako mobilizazioetara joatea, 3) zaintzeari uztea eta, hori irudikatzeko, amantala balkoian eskegitzea, 4) gure eskualde edo arloan greba antolatzea eta zabaltzea, 5) besoko morea eta txapa ipintzea, grebarekin bat egiten dugula adierazteko. Izan gaitezen greba hau eremu guztietara zabaltzeko kanala, sortu ditzagun gatazkak lagunartean, bikotean, familian, lantokian, etxean, hezkuntza zentroan...!

### **Kontsumo greba izango da ere bai!**

Martxoak 8an EZ kontsumitzera deitzen dugu. Badakigu kontsumoa oso zabala dela, eta komertzio bateko salerosketa gainditzen duela (argia, mugikorra,...). Baina martxoaren 8an eguneroko normaltasunarekin apurtu nahi dugu, hiriak, herriak eta auzoak geldiarazi. Beraz, dena itxita egotea da helburua.

Horretarako, **komertzioak itxi eta irekita dauden horietan ez kontsumitzera deitzen dugu jendarte guztia, emakume\* zein gizon**. Bitartean, tokian toki, emakumeak\* komertzio edo tabernetan kontsumitu gabe egoteko gune autogestionatuak sortu daitezke, kalean zein lokaletan.

Honekin batera, greba feministaren egunetik haratago doan kontsumo ereduaren inguruko hausnarketa zabaldu nahi dugu: **Nola ekoiztu da kontsumitzen duguna?** Zein lan baldintzetan? Planetaren muga biofisikoak aintzat hartu dira eta produkzio eredu jasangarria garatu da? Beste herrialdeetako langile zein natur baliabideak esplotatu dira? Bertako oihal produktiboa indartu da? Autogestio, horizontaltasun edota kooperatibismoan oinarritutako lan harremanak bultzatu dira? Euskal Herriko elikadura burujabetzari ekarpena egiten dion nekazal produkzioari bide eman zaio? Generoaren araberako bereizkeriarik gabeko kontratazioa bermatu da? Zaintza eta etxeko lanen banaketa parekidea errazteko neurriak hartu dira?

Kontsumo arduratsu eta jasangarria garatzeko deia egiten dugu. Gure konpromiso politikoa kontsumitzerakoan hartzen ditugun erabakietan isla izan behar duelako. Kontsumitzen dugunean ekoizpen eredu bat edo beste sustatzeko boterea dugulako. Hortaz, langileon esplotazioaren ikur diren enpresei, beren publizitatean emakumeok\* objektutzat hartzen gaituzten horiei, beste herrietako miseria eragiten duten multinazional handiei planto! Martxoaren 8an eta egunero!

## ZEIN DA GREBAREN SUBJEKTUA?

**Emakumeak, bollerak eta transak, hots, heteropatriarkatuak zapaltzen dituen subjektuak gara.** Heteropatriarkatuak “gizon” eta “emakume” binomioa eraikitzen eta inposatzen du. Horregatik, zakildun gizonak ez garenak, “emakume” kategorian kokatuak gara eta gizonekiko azpiratuak. Greba feministaren subjektu guztiak ez gara emakume bezala izendatzen. Are gehiago, iruditzen zaigu emakume eta gizon kategoria patriarkalekin amaitu beharra dagoela. Baina, gaur egun, kategoria hori baliagarria zaigu zapalkuntza izendatzeko. Beraz, emakume\* hitza erabiltzen dugunean, heteropatriarkatuak zapalduko subjektuez ari gara. Langileak gara, doakoak, soldatapekoak, langabetuak, ikasleak eta pentsionistak. Ez gara produkzio bideen jabe, ez eta kapital handien jabe ere. Horregatik, zapalkuntza eragiteko kategoria egituratu guztiakin amaitu nahi dugu, gizon-emakume, gai-ezgai, zuri-beltz eta langile-burges bereizketekin.

Anitzak gara eta gure artean zapalkuntza ardatz desberdinak gurutzatzen dira, ondorioz, gure arteko botere erlazioak ere eraldatu behar ditugu. Baina, ez dugu gure burua soilik zapalkuntzatik izendatzen, praktika eta posizio politikoetatik ere izendatzen dugu. Bollera eta trans nortasunak kokaleku politiko bezala aldarrikatzen ditugu, heteroarauari planto egiteko bide bezala. Elite ekonomikoak desjabetuen kontra egiten ari diren gudari planto egiten diogun langileak gara. Feministak gara eta hetero-patriarkatu-kapitalistari planto egiten diogu!

**Greba Euskal Herriko Mugimendu Feministak deitzen du.** Egun honetan, beraz, Mugimendu Feministak hiri eta herrietan deitutako mobilizazioetan parte-hartzea bultzatzea eskatzen dugu eta ez beste eragile batzuk deitu dezaketen ekimenetan. Modu berean, greba feminista dinamikaren irudi eta aldarrikapenak erabiltzera deitzen dugu, sindikatu, alderdi edo beste edozein erakunderen sigla eta koloreen protagonismoa ekidituz.

Ez dugu Mugimendu Feministaren borroka inork xurgatzerik onartuko, ez eta honen erabilpen partidista edo korporatibista interesaturik ere.

## ZER DA LANA?

**Lana dira ongizatea eta aberastasuna sortzen duten eta bizitza aurrera ateratzeko baliatzen ditugun jarduera guztiak, ordainduak izan zein ez.** Gure jendartean, bi espaziotan sailkatu dira jarduera horiek, espazio publikoan edo pribatuan, eta, ondoren, lan produktibo eta erreproduktibo gisa bereizi dira. Ikuspegi horren arabera, diru truk egiten dena baino ez da lan produktiboa, eta emakumeok\* dohainik egiten ditugun lanak, berriz, erreproduktioarekin, maitasunarekin eta familiarekin lotzen dira, eta hala ezkutatu egiten dira, eta balioa kentzen zaie.

Bizitza sostengatzeko jarduerak, ordea, zeharkakoak dira eta ezin dira bi eremutan banatu. Hortaz, etxeko lanak eta zaintza lanak produktiboak eta politikoak dira, ezinbestekoak baitira gizarteari eusteko, bizitza sostengatzeko eta kapitala produzitzeko. Emakumeon\* esplotazioari esker, lan horiek dohainik ateratzen zaizkio sistemari; zer esanik ez arrazakeriarekin gurutzatzerakoan. Gaur egungo **Euskal Herrian dugun zaintza eredu emakumeon\*, eta bereziki emakume\* migranteon, esplotazioan oinarritzen** baita. Zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatzen ez bada, hots, gizonak eta egitura publikoak ardura zuzenak hartzen ez badituzte, emakumeon\* bizkar geratuko dira lan horiek, lan baldintza txarretan eta kasu batzuetan esklabutza egoeran aurrera eramanez. Kapitalak ezingo luke horrenbesteko aberastasuna metatu lan horiek guztiak dohainik edo lan baldintza okerrenetan egingo ez balira.

**Lan banaketa sexuala gizarteko eremu guztietan gertatzen da** eta botere erlazioaren bitartez eraikitzen da. Izan ere, lan feminizatuek (batez ere emakumeok\* egiten ditugun lanak, %80an edo gehiago) eskubide, soldata eta errekonozimendu baxuagoak dituzte. Adibidez, etxeko enpleguan ez dago langabezia eskubiderik, doako lanetan jardun garen emakumeok\* ez dugu pentsio propiorik, barneko etxeko langileon abusu eta iruzurrekin amaitzea ez da lehenesten eta langile sexualok ez dugu sindikatzeo eskubiderik.

Zaintza eskubide bat da, eta posible da zaintza beste modu batean antolatzea. Ekonomia feministaren ekarpenei tiraka, pertsona guztiok ematen eta jasotzen ditugu zaintza(k) gure bizitzako hainbat fasetan, hainbat maila eta intentsitatetan, guztiok baikara zaurgarri eta interdependiente. Baina, gizarte heteropatriarkaletan, besteak zaintzea betebeharrak bat da emakumeontzat\*, besteen beharrak asetuz maitatuak izateko agindu sozial bat, eta menpekotasunean eta besteen desirak betez sozializatzeko modu bat. Ondorioz, hauxe aldarrikatu nahi dugu: emakumeok\* badugula eskubiderik zaintzeari uzteko, gure beharrak lehenesteko eta besteen desirak ez betetzeko.

Etxeko lanak eta zaintza lanak anitzak dira, eta bereizi behar ditugu. Esate baterako, lan batzuk luxuzko zerbitzuetan hartu behar ditugu (adibidez, egiteko gaitasuna duenari alkandorak plantxatzea) eta beste batzuk, aldiz, kontrako aldean daude, eskubide sozialak dira (adibidez, auto zaintzarako zailtasunak ditugunean). Kalitatezko zaintza jasotzea ezin da bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera izan eta langile guztientzat eskubideak bermatu behar dira.

## ZER ESKATZEN DUGU?

### BIZITZAK ERDIGUNEAN!

2018ko M8ko greba feministan elkarlan sare izugarria antolatu genuen Euskal Herri guztiko auzo, herri eta hirien artean. Emakumeon\* behar eta ezinegonekin bat eginda, kaleak blaitu genituen. Anitzon arteko konplizitateez baliatuta, ukatu zaigun **historiaren erdigunea okupatzeko atzera bueltarik gabeko urratsa eman genuen joan den urtean.**

Erdigunea hartzea ekintza material eta sinbolikoa da, hegemonia eraldatzen du. **Erdigunea hartzeak egituraketa eta botere erlazioak aldatzea exijitzen du.** Bizitza erdigunean kokatzeak gizartearen egituraketa osoari eragiten dio. Beraz, ez zaizkigu azaleko aldaketak interesatzen, eta ez gara konformatzen emakumeen %1ari bideratutako hobekuntza apurrekin. Kristalezko sabaiak bezala, zoru itsaskor eta prekarioak hautsi nahi ditugu.

**Bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu.** Guztiontzat bizitza bizigarriak lortzeko, hasteko, elkarren beharra dugula aitortu behar dugu, ez garelako merkatura datozen subjektu autonomo eta arrazionalak, beharrik gabekoak. Ulertu behar dugu inguruan sumatzen ditugun injustiziak elkarri loturik daudela: soldatapeko lan feminizatu prekarioa, ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen ditugun jardunaldi amaigabeak, paperik gabe dauden etxeko langileak, botere guneetan dauden gizon burgesek bankuaren interesak lehenestea, naturaren desjabetzea, emakumeon, bolleran eta transon aurkako biolentziak, epaitegietan erasotzaileak babestea e.a. Horrek guztiak erakusten digu, **gure jendartean, bizitza batzuk beste batzuk baino balio handiagoa daukatela.** Hierarkia horiekin amaitzera etorri gara.

Austeritateak zaintzen krisia sakondu duen garaiotan, **zaintzaren berrantolaketa soziala aldarrikatzen dugu, politika publikoen zeharkako ardatza izan dadila, pertsonen zaintza ez dadila zapaldutakoon eskubideen bizkar geratu.** Horretarako, **instituzioek eta gizonak beren gain hartu behar dituzte dagozkien zaintzen ardura,** eta, ez hori bakarrik, muintetik aldatu behar ditugu gure balioak, harreman pertsonal eta komunitarioak, bikote eta familia ereduak, eguneroko praxia, produkzio moldeak, politika publikoak eta lurralde-antolamendua.

Badakigu kapitalismoa ezin dela berregin emakumeak\* azpiratu gabe. Emakumeok\* planto egiten badugu, dena gelditzen da. Beraz, honexetarako goaz grebara, sistemarekiko haustura eragiteko eta **paktu sozial berri bat eskatzeko.** Enpleguaren sarbidean eta jatorrian oinarritzen ez den herritartasun eredu inklusibo bati ateak irekiko dion ituna nahi dugu.

Bide horretan, parekidetasuna bermatzeko politikak eta **berdintasun formalaren garapena ezinbestean lotu behar ditugu sakoneko eraldaketa prozesu batekin.** Hau da, batetik, emakumeen\* eskubide sozial eta zibilak eskuratzeko borrokatzen ari gara. Eta, aldi berean ari gara borrokatzen lanaren esplotazioa, kapazitismoa, arrazakeria eta sexu-generoaren arteko bereizkeria gainditzeko agenda garatzeko. Gure lurraldeetan eta gorputzetan burujabe izateko. Lana eta aberastasuna modu justuan birbanatzeko. Bazterreko subjektuok, gure aurkako biolentziarik gabe, aske izan ahal izateko.

Eraldaketarako errezeta zurrun eta dimentsio bakarrekorik ez dago. **Horregatik, Euskal Herrian antolatuta dauden hainbat kolektibo eta plataformarekin elkartu gara** (etxeko langileak, migranteak, baserritarrak, pentsionistak, gazteak, sindikalistak...), haien aldarrikapenak jasotzeko eta borroka komun baten pean elkartzeko. **Exijentzia politiko horiekin hartuko ditugu kaleak**, beraz, martxoaren 9an feminismoaz hitz egin nahi duenak, aintzat hartu ditzala:

### **BIZITZA PREKARIORIK EZ!**

- *Enplegu duina emakumeontzat\*! Prekarietateari ez!* Inposatutako jardunaldi partzialik ez, soldata arrakalarekin bukatzeko neurri eraginkorrak, behin-behinekotasunarekin bukatzea, pribatizaziorik ez eta azpikontraten errebertsioa!
- *Lan araututik kanpo emakumeek\* egiten dituzten enpleguak lan eskubideez eta negoziazio kolektiborako tresnez hornitu!*
- *Bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren lanen aitortza politiko eta soziala!* Lan horiek gabe jendartea pikutara doalako. Gure lanek eta bizitzek balio osoa dutelako.
- *Etxeko enplegua balioa, aberastasuna eta ongizate soziala sortzen duen jarduera ekonomikogisa aitortzea.* Eusko Jaurlaritzaz eta Nafarroako Gobernuaren eskutik, Lanbide, Nafar Lan Sare, Osalan, ISNL zein Enplegu sailetik jasotzen dugun diskriminazioarekin amaitzea. Botere publikoek sektore horretako kontratazioan esku hartzea: kontratazio agentziak kontrolatzeko, lan baldintza duinak ezartzeko (lan inspezioen eta neurri eraginkorren bitartez) eta lan osasuna bermatzeko.
- *Barne etxeko langilearen figura desagertzea.* Lan baldintza onartezinak eta salbuespenezkoak direlako.
- *Kalitatezko bizitza bat bizitzeko beharrezkoak diren lan jardunaldi egokiak;* benetako kontziliazio neurriak eta erantzunkidetasun sozial erreala, bizitza pertsonala eta lan bizitza uztartu ahal izateko.
- *Oinarrizko behar materialak bermatzeko baliabideak!* Etxegabetzeak gelditu, etxebizitza eskubidea orain! Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta-RGI (EAE) eta Bermatutako Errenta (Nafarroa) eskubidea bermatu, eta diru laguntza hauek gutxieneko soldatarekin parekatu!
- *Pentsio duinak emakumeontzat\*!* 1080€ gutxienez. Ez dugu ontzat ematen Pentsioen Sistema Publikoa deuseztatzea eta laguntza sistema batean bihurtzea.
- *Zaintzarako eta menpekotasunari arreta emateko berezko sistema publikoa: zerbitzu sozial, publiko, doako eta unibertsalak!* Pribatizaziorik ez! Denok gara interdependienteak, zaintza ezin da familien ardura edo negozio bat bilakatu.
- *Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Berezko Esparruaren aitortza.* Demokratizazioan sakontzeko, gure bizitzak baldintzatzen duten erabakiak ahalik eta gertuen hartu nahi ditugulako.

• *Emakume\* baserritarren estatutua garatu, baliabidez hornitu eta betearazi.* Emakume\* baserritarren funtzio sozialaren errekonozimendua bultzatzeko, nekazaritzara zuzendutako laguntzak errentaren gehigarria izateko (ez hektarearen arabera), lurra emakume\* nekazariontzat eskuragarri jartzeko, bertan epe luzerako proiektuak garatu ahal izateko.

### **INDARKERIA MATXISTARIK ETA HETEROARAURIK GABEKO BIZITZA ANITZAK!**

- *Injustizia patriarkalari ez!* Emakumeak\* berbiktimizatzen dituen prozedura judizialekin amaitu. Emakumeon\* beharrak, askatasuna eta erritmoak prozesu judizialen erdigunera eramanez! Gure sinesgarritasuna, testigantzen balioa eta jasotakoaren aitortza oinarritzea.
- *Genero indarkeriaren legea zabaldu,* bikote harremanaz gaindi gertatzen diren indarkeria matxista eta LGTBIQ+ fobiaren askotariko adierazpenak barnean hartzeko.
- *Indarkeria matxista egoerei aurre egiteko baliabide publiko integral eta eraginkorrak;* emakumeon\* behar material, psikologiko eta juridikoak bermatzeko: etxebizitza, diru-sarrerak, genero ikuspegia duten abokatu edo psikologoak...
- *Prebentziorako eta emakumeon\* ahaldunderako baliabideak eskaini!* Eta hezkidetzak eta autodefentsa feminista ikasgeletan landu.
- *Aniztasun funtzionala dugun emakumeon\* errealitate espezifikoak bistaratu eta horri erantzuteko baliabideak eman!* Indarkeria matxista egoeretan dugun zaurgarritasun egoera berezia aintzat hartuta, prebentzio eta babes neurri egokiak hartzea eta gure ahaldundera prozesuak erraztea. Osasun sisteman, arreta ginekologikoen gailuen irisgarritasuna bermatzea, eta Familia Plangintzan zein erreproduzioa laguntzeko zerbitzuetan sartu ahal izatea.
- *Emakumeon\* ugalketa eskubideak eta abortu libre eta doakoa bermatzea!* Gure gorputza, gure erabakia!
- *Ezkontzaren pribilegio sozioekonomikoekin eta politika familistekin amaitzea!* Familia nuklearrean oinarritzen ez diren antolaketak aintzat hartzea, esaterako, zerga sistema edo baimenak ezartzean.
- *Trans despatologizazioa!* Osasun zerbitzu publikoek trataera espezifikoak eskaintzea, eta trans pertsonen protagonismoa eta autonomia erdigunetan ipiniko dituzten prozesuak ahalbidetzea.

### **ARRAZAKERIARIK ETA GERRARIK GABEKO BIZITZAK! KOLONIALISMOAREN AURREAN GURE GORPUTZA, LURRALDEA ETA LURRA DEFENDA DITZAGUN!**

• *Atzerriartasun legea atzera bota!* Baita jatorriaren arabera lehen mailako eta bigarren mailako herritarrak sortzen dituen beste edozein politika arrazistarekin amaitu ere. Inor ez da ilegala.

## ZERI EGINGO DIOGU PLANTO?

- *Arrazakeriaren ondorioei aurre egiteko politikak garatu eremu guztietan:* horretarako, erroldatzea erraztu, osasun eta hezkuntza sistemarako sarbidea bultzatu, etxebizitza eskubidea eta prestazio sozialak bermatu, enplegu eta formazioan lagundu, ikasketa tituluak parekatu...
- *Europar Batasuneko migrazio politika genozidei ez!* Mugak ireki eta CIE guztiak itxi!
- *Merkataritza askeko nazioarteko itunik ez!* Gure lurraldea kolonizatzen duten eta korporazio handien botere mugagabearren menpe jartzen gaituzten TTIP edo CETA bezalako hitzarmenik ez! Herriok burujabe!
- *Hegoalde globaleko herriak, lurrak eta pertsonak sarraskitzen dituzten transnazionalik ez!* Gure herrialdeetan zentro finantzariak dituzten korporazio handiak dira (meategi enpresak, zentral hidroelektrikoak, arropa markak...); euren jarduna legez mugatzea, eta euren produktuak ez kontsumitzea, denon ardura da.
- Euskal Herrian, askotariko gatazkak zeharkatzen gaituzte, tartean, "euskal gatazka" delakoak. Hori konpontzeko bidean, *presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzen dugu, baita emakume\* presoek bizi duten isolamendu hirukoitzarekin amaitzea ere.* Bide horretan, bakegintzan emakumeon\* parte-hartzea eta ikuspegi feminista txertatzeko borondate politikoa eta tresna zehatzak exijitzen ditugu.
- *Lurra suntsitzen duten proiektu txikitzailek ez!* Erraustegia, fracking edota AHT bezalako proiektuak gelditu!
- *Gerrari planto!* Euskal Herriko armagintza enpresak nahiz gerra-helburuekin egiten diren ekoizpenak gelditu. Gerra inperialistak babesten dituzten negozio eta politikarik ez!
- *Askotariko kolonizazio kultural prozesuen aurrean, Euskara erdigunera!* Euskararen ofizialtasuna eta normalizazioa bilatzen duten politikak bultzatu; doako euskara ikastaroak antolatu hala bertakoentzat nola jatorri atzerritarreko herritarrontzat.

Egungo zapalkuntza sistema basatia ezin dugu termino bakar batekin definitu. Elkar elikatzen eta osatzen duten hainbat egitura ditu. **Guztien arteko sinbiosi baten aurrean gaude, eta ezin ditugu berezi eta mailakatu. Denak baitira beharrezko errealitatea ulertzeko.**

### KAPITALISMOARI PLANTO!

Kapitalaren interesak erdigunean jartzen dituen sistema ideologiko, politiko, sozial eta ekonomikoa da. Sistema honetan, jendartearen gehiengoak gure lan indarrak saldu behar ditugu, hartara gutxiengo pribilegiatu batek (ekoizpen bitartekoen jabe den burgesiak) bere jabegoak handitzeko. Hots, langileriaren soldatapeko lanaren ondorioz sortutako plus-balioaz jabetzen da burgesia. Lan antolaketaren oinarrian lan erreproduktiboa dago (gehienetan doakoa eta feminizatua).

Kapitalaren erreproduktzioak baliabide ekonomiko bilakatzen du gu guztion bizitza (gizakiona eta ez gizakiena), eta etengabeko ustiapen desorekatua inposatzen du muga biofisikoak dituen planeta baten gainean; horrela, baliabide naturalak, lurra eta bestelako bizi ereduak suntsitzen ditu. Logika horri jarraikiz, gizakiak ez diren animaliak kontsumorako produktu bilakatu dira, eta, bereizketa espeziata bat eginez, azken horien tortura eta produkzio industrialak zabaldu da.

Kapitalismoak bere baitan ditu berregokitzeko eta berrasmatzeko erremintak: hala, etengabeko krisien bidez, gai da merkaturak zabaltzeko eta eremuak merkantilizatzeko. Feminismoaren indar eraldatzailea mehatxu bezala ikusi baitu, gure borroka kontsumorako produktu bihurtzen eta eduki politikoz husten saiatzen ari da orain.

**Horregatik, iraultza feminista antikapitalista izango da edo ez da izango!**

### PATRIARKATUARI PLANTO!

Botere sistema bat da, "gizon" bezala eraikiak izan direnen gobernuak. "Emakume" bezala eraikiak garenon dominazioaren bitartez egituratzen da, eremuz eremu. Genero binarismoa eta familia nuklearra ditu oinarritzko egitura, publiko-pribatu bereizketaren bitartez egituratuak biak, eta birsortzen du, etengabe, kapitalismoaren beharrak asetzeko identitateak eta lan banaketa. Esaterako, halakoak sortzen ditu: emakume otzanak eta zaintzaileak; gizon oldarkorak eta lehiakorak. Emakume eta gizon kategoriak, beraz, sozialki eraikitzen dira, sistemak bizirik iraun dezan. Baina, generoa eta sexua ez dira kategorio naturalak eta aldaezinak. Beraz, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanetan gertatzen diren diskriminazio materialek indarkeria sinbolikoan dute oinarria. Hau da, kulturen, hezkuntzan, arlo publikoan, komunikabideetan, artean, zientzian e.a. jasaten dugun ikusezintasunean eta bazterketan. Eremu guztiek elkar elikatzen dute, eta hezkuntzak eta komunikabideek indar handiz erreproduzitzen dute ideologia hegemonikoa. Indarkeria matxista patriarkatuaren tresna da, sistemaren hierarkiak inposatzeko. 2017an ume bat eta 6 emakume\* erail zituzten Euskal Herrian eta 2018an aldiz, 2 ume eta 9 emakume\*. Gogoan zaituztegu!

**Horregatik, iraultza feminista izango da, edo ez da izango!**

# EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN EGOERA: DIAGNOSI SOZIOEKONOMIKO BAT

## HETEROARAUARI PLANTO!

Erregimen oso bat da. Heterosexualitatea ez da, soilik, desira edo orientazio kontu bat, sistemak behar-beharrezkoa duen egitura bat baizik. Ezinbestekoa da alor soziala, politikoa zein ekonomikoa arautzeko eta giza eta produkzio harremanak egituratzeko. Izan ere, aurreko puntuan azaltzen genuen binarismoaren muinean dago heteroaraua, "emakume" eta "gizonen" rolak ezartzen. Arauaren bazterrean kokatzen garenok LGTBQ+ fobiaren bitartez zigortzen gaituzte, eta, emakumeoi\*, bizitza eredu bakarria markatzen digu: feminitatearen eredu jarraitzea, heterosexualitatea, gizonen desirak asebetetzea, amatasun normatiboa, familia nuklearraren eta etxearen zaintza, ... Horretarako, desira eraikitzeko eta maitasun erromantikokoan hezteko balio duten tresnak erabiltzen ditu: telesailak, aldizkariak, hezkuntza testuak, familia erreferenteak, lan eskaintzak e.a.

**Iraultza feministak heteroarauarekin amaituko du, edo ez da izango!**

## KOLONIALISMOARI PLANTO!

Mundu kolonial batean bizi gara, desoreka baitago pertsonen eta lurraldeen arteko harremanen artean. Pentsamendu unibertsal eurozentriko bat inposatzen da. Herrien asimilazio historikoaren bitartez, pribilegio sistema bat ezarri da, bazterketak eraginez hainbat mailatan: arraza, kultura, kosmopolitismoa, ezagutzak, sinesmen erlijiosoak, bizitza ereduak, hizkuntzak, ...

Kapitalismoak kolonialismoa du aliatu nagusi. Arrazismoa ezartzen du hierarkia-menperatzailearen oinarrian, gizatasunaren azpitik jartzen ditu arrazializatutako gorputzak, deshumanizatu egiten gaitu, eta eskubideez desjabetu. Horrek "markatzen" du zer bizitzek axola duten eta zeintzuk ez, eta esplotazio ekonomikoa antolatzen d; adibidez, zaintza lanetan eta etxeko lanetan baldintza onartezinak eta salbuespenezkoak ezartzen ditu. Emakume\* migrante askok bizi dugu errealitate hori, eta munduan kokatzeko posizio berezia dakarkigu.

**Horregatik, iraultza feminista antiarrazista izango da edo ez da izango!**

## KAPAZITISMOARI PLANTO!

Kapazitismoa honexetan datza: aniztasun funtzionala duten pertsonak alboratzean eta ez-gaitu bezala eraikitzean. Ekoizpen sistemara egokitzen diren gorputz ahaldun eta ez ahaldunak, heteroarauaren arabera desiragarri direnak eta ez direnak. Azken horiek kapazak direnen arau eta bizi ereduera egokitu behar gara. Esate baterako, hiriak, espazio publikoak eta garraioak ez dira egokiak aniztasun funtzionala dugun pertsonentzako. Gure eguneroko bizitzan, biolentzia espezifikoa, eskubideen urraketa sistematikoa eta lan merkatuko muturreko bazterketa bizi dugu. Baita eraldaketa prozesuetan ere, zailtasunak ditugu gune, metodologia eta lengoaietara moldatzeko.

**Horregatik, iraultza feminista irisgarria izango da, edo ez da izango!**

Sistema kapitalista eta patriarkalaren arteko aliantzaren ondorioz, kapitalak aberastasuna metatzen du. Bizitzaren erreproduzioarekin eta zaintzarekin loturiko lan guztiak, historian, debalde jaso ditu, etxeetan eta esplotazio egoeran egin baitira. Sistemak izugarriko plusbalioa ateratzen du hortik, hain zuzen ere, 21.342 milioi euro, BPG-aren %32,4a (Eustateko Etxeko Kontu Satelitea, 2018).

## Emakumeak, bollerak eta transak enplegu prekarioan

Emakumeok\* egiten ditugun enplegu askok lan baldintza prekarioagoak dituzte, balio sozial gutxiago dutelako (zaintzarekin dute zerikusia): garbitzaileak, etxeko langileak, helduen egoitzetako langileak, ostalaritzakoak (esaterako Kellyak), erizainak, haur txikiak irakasleak, ... Lan merkatuaz ari garenez, ezin dugu ahaztu egoera administratibo erregularizatuak dena baldintzatu dezakeela; alegia, herritartasun paperek guztiz baldintzatzen dituztela hainbat eta hainbat emakumeren\* bizitzak. Ondorioz, inork egin nahi ez dituen enpleguetan dabilta migranteak (izan soldatapeko edo doakoak).

Horretaz gain, emakumeok\* indarkeria matxista pairatzen dugu enpleguan ere. Horren baitan kokatzen ditugu sexu-generoarekin loturiko diskriminazio eta jazarpen guztiak; besteak beste, heteroarauak dakarren LGTBQ+ fobia ere.

Prekariatatearen feminizazioaren adibide, hona hemen Hego Euskal Herriko zenbait datu: lan kontratu partzialetan ari diren %76,3a emakumeok\* dira (enplegua duten emakumeen %23,8a); emakumeon\* %27,6 ari da aldi baterako kontratuarekin lanean; kontraturik gabe lan egiten ari direnen artean, %73,8 dira emakumeok\* (Eustat, 2018); eta langabetuen erdia baino gehiago dira emakumeok\*: %57,2.

Soldatari dagokionez, berriz, Hego Euskal Herrian emakumeok\* gizonek baino 7.680 euro gutxiago kobratzen dugu (INE, 2016), batz besterik urtean %25,2 gutxiago kobratzen dugu (INE, 2016). Horri soldata arrakala esaten zaio, eta soldatetan eragiteaz gain, beste hainbat gauzatan du eragina: enplegu sarbidean, generoaren arabera segregazioan (enplegu feminizatu eta maskulinizatuak sortzea eta jarduera berdina egiteagatik generoari loturiko kategoria ezberdinak egotea), segregazio bertikalean (lanpostu kategorietan gora egiten den heinean emakumeon\* kopurua murriztea) eta kristalezko sabaian.

Gazteon kasuan, 25 eta 34 urteko jendearean artean, emakumeon\* soldatak, batez beste, gizonezkoenak baino %29 txikiagoak dira Nafarroan eta %24 EAEn. Neska\* gazte mordo batek kontraturik gabe lan egiten du tabernetan, klase partikularretan, dendetan eta zaintza lanetan. Lanaren, parte hartzearen eta zaintzaren banaketa sexualaren ondorioz, neska\* gazteontzat are zailagoa da militantzia-esparruetan aktiboki aritzea.

Landa eremuari dagokionez, berriz, emakumeon\* %19a baino ez dabil lehenengo sektorearekin zerikusia duten jardueretan. Ustiategi profesionaletatik, %25ek emakume\* bat dute titular, %58k gizonak eta gainerako %18 sozietate gisa antolatuta daude. Baserrietan lan egiten dugu, baina askotan Gizarte Segurantzarik gabe, ez gara jabeak eta ez gaude alta emanda; horrek babesgabatasun handia eragiten digu. Horretaz gain, ez dago ordutegi finkorik, denbora handia eskatzen duten zereginak egiten ditugu eta zaila izaten da zehaztea non hasten den enplegua eta non zaintza lanak; hala, lanaldi bikoitza sortzen da, bai eta porrot eta estres sentazio handia ere.



Emakumeok\* jasotzen ditugun prestazioak kaskarragoak dira, errenta maila txikiagoak ditugu eta pobrezia egoera arrisku handiagoa daukagu. Gaur egun, gainera, enplegu bat izateak ez digu bermatzen pobrezia edo bazterketatik at egotea. Lanbidek 2018an helarazitako datuen arabera, enplegua sustatzeko laguntzak jasotzen dituztenen artean %66,45 emakumeak\* dira (horrek erakusten du nolako enpleguak ditugun); eta “guraso bakarreko” laguntza jasotzen dutenen artean %95 emakumeak\* dira (datu horrek erakusten du zaintza lanen gehien-gehienak gure esku daudela eta egoera horrek zuzenean eragiten diola gure bizitzari).

Prestazioei tiraka, hel diezaiozun pentsioen gaiari. Emakumeok\* gizonen baino erretiro pentsioa baxuagoa jasotzen dugu (%37,38) eta gure pentsioen zenbatekoa txikiagoa da, batez ere miseria alarguntza pentsioetan (batez beste, 816,16€ EAEn eta 740,46€ Nafarroan); alarguntza pentsioen %93,32a emakumeok\* jasotzen ditugu. EAEn 2016an gizonen erretiro pentsioa emakumezkoena baino %79 altuagoa zen (Kontseilu Ekonomiko eta Soziala, 2017) eta 2015ean, berriz, gizon nafarren erretiro pentsioa emakumezkoena baino %70 altuagoa zen (Nafarroako Estatistika Institutua). Pentsiodun emakumeoi\* ukatu egin digute lan merkatu arautuan sartzeko aukera, eta, sartu garenean, zaintza lanei lotuta baliatu ditugun baimen eta lan murrizketek guztiz baldintzatu digute erretiroa. Askok gure bizitza guztian lan egin arren, ezkutuko ekonomian, etxeetan zein zaintza lanetan ez dugu horretarako aukerarik izan eta pobrezia egoerara eta mendekotasun ekonomikora kondenaturik gaude.

### **Zaintza lanak eta etxeko lan ordainduak**

Krisi ekonomikoaren aurrean, sistemak mozkinak ateratzeko, zaintzaren negozioa bultzatu da, sektore feminizatu horretako langileen bizkar; ondorioz, emakumeak\* izan gara krisiaren koltxoia. Azpikontraten bitartez, diru publiko hornitutako enpresa gutxi batzuek milioi bat euro baino gehiagoko irabaziak lortu dituzte urte batean. Langileen %90 baino gehiago emakumeak\* gara, eta gerente gehienak, aldiz, gizon zuriak (haiek pilotzen dituzten irabaziak). Besteak beste, halako lanetan ari dira zaharren egoitzetako langileak, etxez-etxeko langileak zein garbitzaileak.

Baina, beste hainbat emakume\* Segurantzaren erregimenetik at eta oinarritzko lan eskubideen bermerik gabe ari gara. Etxeko langileok, adibidez, ordutegirik gabe, langabezia prestaziorik gabe, kaleratze merkeekin, lan osasuneko inolako bermerik gabe eta negoziazio kolektiborako aukerarik gabe lan egiten dugu. Hego Euskal Herrian, 37.243 langile gara Gizarte Segurantzaren alta emanda gauden etxeko langileak eta, horietatik, %37,79 gara migranteak.

Nabarmendu beharra dago etxeko barne langileen egoera (etxean lo egiten dugunon egoera). Gure lan eskubideak ez dira ia inoiz betetzen eta gure lan baldintzak onartezinak eta salbuespenezkoak dira. Gainera, zenbait estatistikaren arabera, 2017an etxeko barne langileen %16k ez zeukan paperik. Esplotazio egoerak ahalbidetzen dituzten agentzia banpiroek kontratatzen gaituzte, edo, bestela, kontratatzaileek eurek zuzenean, erlazio indibidualen bidez; hala, handitu egiten da emakumeon\* zaurgarritasun egoera. Kontuan izan behar dugu migranteok egoerarik zaurgarrienean hartzen ditugula zaintza lan horiek, eta gure herrialdeetako beste emakume\* batzuen esku utzi behar izaten dugula gure familien zaintza.

### **Zaintza lan eta etxeko lan doakoak**

Azken urteetan, emakumeok\* soldatapeko lanetan hasi gara, eta lan harremanak aldatu dira; hala ere, horrek ez du antolaketa sozioekonomikorik ekarri: esaterako, ez dira zaintza lanak gizonekin banatu, erantzunkidetasunez; ez eta zaintza integralerako sistema publiko eta doakoa sortu ere. Soldatapeko lana dutenen artean, zaintza lanez arduratzen direnen %75,2 emakumeak\* dira (EAEko datuak). Hego Euskal Herrian, umeen eta helduen zaintzarako eszedentziak hartzen dituztenen artean %91,5a emakumeak\* dira.

Beraz, emakumeok\*, gaur egun, “lanaldi bikoitza” egiten dugu; bietan ari gara: lan merkatuan eta etxean. Denboraren erabilerari buruzko datuei erreparatuz gero, hauxe ikusiko dugu: emakumeok\*, gizonekin alderatuz, ia lanaldi oso bat gehiago egiten dugula, batez beste, astean, ia ordubete gehiago egunean. Denboran, beraz, askoz pobregoak gara.

Etxeko lanei dagokionez, datuen arabera, etxeko lan ohikoenak (arropa garbitu, janaria prestatu, harrak egin,..) emakumeon\* esku daude, hots, ez dira banatzen. Aldiz, ezohiko jarduerak banatzen dira gehien (erosketak, etxeko-konponketak...), gizonak gehiago inplikatzeko baitira horietan. Pertsonen zaintzari dagokionean, umeen zaintza partekatzeko joera handitu da; baina konplexuagoak izan daitezkeen zaintzak (gaixo edo zaharrena, adibidez) emakumeon\* gain daude nagusiki. Bestetik, gaur egun, etxeko lanen denbora arrakala jaitsi egin da, halako lanak merkatuan erosten direlako edo, besterik gabe, batzuk jada egiten ez direlako, edo gutxiago egiten direlako.

### **Instituzio publikoen ardura**

Arestian aipatu bezala, zerbitzu publikoek eskaini behar dituzten zaintza lan horiek enpresa pribatuen bidez azpikontratatu dituzte, eta, ondorioz, langileen egoera –batez ere emakumeon\*– eta zaintzak emateko baldintzak kaskartu dira. Gainera, horri guztiari gehitu behar zaizkio azken urteotako pribatizazio-prozesuak eta murrizketak, besteak beste, osasungintzakoak eta irakaskuntzakoak. Hala, zerbitzu publikoak deuseztatzen ari dira.

Zerbitzu sozialetan ere izan da inboluziorik. Eta, bistan da, estatuetan abiarazi den joera bir-zentralizatzaileak atzerakada horretan sakonduko duela. Dependentsia legerari lotuta, adibidez, familiei zuzendutako diru ekarpenak txikitu dira. Zaintzei aurre egiteko kontziliazio eta erantzukidetasun neurriak proposatu ordez, politika familiaristak bultzatzen dira. Denboraren erabilera aztertuz gero, ikus daiteke, krisi garaietan, jendartean denbora gehiago eskaintzen zaiola etxeko lanari eta zaintza lanari lan ordainduari baino, hots, krisi garaietan, etxeko eremuan egiten dira jendartearen bizitzak sostengatzeko prozesuak, lan merkatutik edo zerbitzu publikoetatik baino gehiago (2013an, jendartearen denboraren %56 etxeko eta zaintza lanei bideratzen zitzairen, eta %44, berriz, lan ordainduari).

Konziliazio politikak kapitalaren logikari jarraikiz antolatu dira, aberastasun gehiago metatzeko helburuarekin (aktibazio ekonomikoa sustatzeko politikak izan baitira). Emakumeon\* enplegu tasak handitzea bilatu dute, urteetan zehar emakumeon\* langabezia tasak ikaragarriak izan direlako. Aldiz, enpleguaren kalitatea bermatzeko neurri gutxi hartu dituzte: lan partziala izan da konziliazio politikek sustatu duten neurrietako bat, zeina kotizazio sistema diskriminatzailean oinarritua baitago.

# ZEIN DA GIZONEN PAPERA GREBAN?

Emakumeok gaude deituta grebara, baina martxoak 8an ez dugu kapitalaren erreproduktzioarako jarduerarik nahi. Beraz, gizona bazara eta greba babestu nahi baduzu, soldatapeko lana utzi norberaren eginkizunetarako egunak erabiliaz eta negozio propioa baduzu ateak itxi.

Emakume, bollera eta transak greban gaudenez gizonak etxeko eta zaintza lanez arduratu behar dira gizonak. Ondoren azalduko dira etxeko eta zaintza lanez arduratzeko moduak. **Gizona bazara zaintza lanez arduratzea da lehentasuna, eta ez mobilizazioetan parte hartzea.**

Etxeko eta zaintza lanez arduratzeaz eskatzen dizugu, baina mobilizazioetan parte hartzen baduzu, gogoratu emakumeon\* protagonismo eta bisibilizazioa ezinbestekoak direla. Gizon moduan, hori ahalbidetzea dagokizu, jar zaitez atzeko aldean, agindu edo azalpenik eman gabe.

Hemen doa, martxoaren 8an etxeko eta zaintza lanez arduratzeko eta greba bultzatzeko gizonentzako gida:

- Aita bazara zure seme-alabez arduratu eta eztabaida zein ikasle greba lagundu (guraso elkartean, eskolan...).
- Laguna bazara, zure lagunen umeak zaindu ditzakezu.
- Lankidea bazara, lantokian emakume\* greba zabaltzeko, babesteko, zerbitzu minimoak egiteko edo emakume\* lankideen lana egiteko eskaini ahal duzu zure burua. Eguneko soldata mugimendu feministari eman diezaiokezu, edo lantokian emakume\* grebarentzat erresistentzia kutxa antola dezakezu.
- Enpresako nagusia bazara, enpresa itxi eta beharrezkoa bada zaintza kolektiborako espazioa irekitzea ahalbidetu.
- Ikaslea edota irakaslea bazara, eskolara joango ez diren emakume\* ikaskideak eta ikasleen lanuztea babestu eta eskolak zaintza komunitariorako espazio bilakatu.
- Zure familian, elkarbizitza taldean edo inguru afektiboan zaintza behar duenik badago, has zaitez egun horretatik aurrera ohituraz emakumeok\* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.
- Zaintza komunitariorako espazioak autonomoki sortu (lantegietan, eskoletan, gaztetxeetan, e.a.). Gizonek ardura hartu behar dute, helburua ez da emakumeen\* laguntzaile izatea.
- M8rako antolatzen diren bazkari herrikoietan e.a. lana egiteko zure burua eskaini.
- Zure inguruko norbait zaintzeko soldatapeko emakume bat badago (haur, adindun, bizilagun e.a.) zure burua eskaini egun horretan lan egiteko.
- Emakume\* batekin harreman sexu-afektiborik baduzu, martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza guztia emaitu.

• Zabaldu mezua zure lagun eta talde guztien artean. Militantea bazara, eraman zure eremu politikora.

• Ez kontsumitu. Batu zaitez kontsumo grebara.

• Greba egunaren aurretik eta ondoren beste gizonezkoekin bildu zaitezke, maskulinitateen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zuen pribilegioez kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartea lortzeko bidean pausoak emateko.

GREBA FEMINISTA BABESTEN ARI BAZARA,  
ZURE LEKUA ETXEKO ETA ZAINZTA LANETAN DAGO!